

2022AN LURZORU PUBLIKOA TIOBIBOEKIN OKUPATZEKO BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2022. urtean tiobiboekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimenak ematea.

Zehazki:

1.- San Pedro jaietan, Ikastola ondoko plazan. 2022ko ekainaren 24tik uztailaren 3ra. (Instalazio-aldia: 2022ko ekainaren 23ko 14:00etatik aurrera uztailaren 4a arte).

2.- San Nikolas jaietan, Ikastola ondoko plazan. 2022ko abenduaren 2tik 11ra. (Instalazio-aldia: 2022ko abenduaren 1eko 14:00etatik aurrera abenduaren 12 arte).

* Aldi horiek egokitu ahal izango dira, bere garaian, irizpide orokorretara egokitzeko.

2. Eskakerak

Aipatutako jarduerarako legezko baldintzak betetzen dituzten enpresek edo jarduteko gaitasun juridikodun pertsonak egin ditzakete eskaerak.

Eskaera idatziz aurkeztuko da, inprimakia beteta, udaleko erregistroan edo bulego elektronikoan.

Eskaerak aurkezteko epeak hauek izango dira:

- San Pedro jaiak: 2022ko ekainaren 3ko arratsaldeko 14:30ak baino lehen.
- San Nikolas jaiak: 2022ko azaroaren 4ko arratsaldeko 14:30ak baino lehen.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira, nahitaez:

- Atrakzioaren titularraren NANaren kopia.
- Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimenean altan dagoela eta azken hilabetea ordaindu duela egiaztatzen duen agiria.
- Ogasuneko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Erantzukizun zibileko poliza, atrakzioen kasuan gutxienez 300.000,00 euroko mugarekin eta, kaseten kasuan, gutxienez 150.000,00 euroko mugarekin, eta horren ordainketaren agiria.
- Ekonomia Jardueren Zergan altan dagoela egiaztatzen duen agiria.

- Atrakzio mekanikoaren egiaztapenaren eta probaren urteko ziurtagiria, industria-ingeniari kolegiatu batek sinatua.

Eskaera bakoitzeko atrakzio bakarra aurkeztu ahal izango da.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Baimendutako interesdunak egiaztatu behar du bete beharreko baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu; zehazki:

- Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina.
- Dagozkion tasak ordaindu izanaren eta 350 euroko fidantza jarri izanaren agiriak.
- Atrakzioa muntatu ostean, ikuskapen teknikoaren agiria dagozkion teknikari gaituak eta kolegiatuak egindakoa eta sinatutakoa.

Agiri horiek aurkeztu ezean, baimendutako interesdunak ezingo du atrakzioa martxan jarri.

2.- Jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea izango da, eta Udalak ere jarduera horren aurrean hirugarren baten izaera izango du.

3.- Baldintza hauek ere bete behar ditu:

- Iberdrolarekin kontratatu beharko dute argindarra, eta debekatuta dago udal-saretik hartzea. Dagozkion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez eta instalatzaile ofizialak egin beharko ditu lotura guztiak. Iberdrolarekin argindarra hornitzeko kontratua sinatu beharko da eta hornidura eskatzailearen kontura izango da.
- Atrakzioak jartzeko ezingo da lurra zulatu.
- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.
- Musika bakarra izango da atrakzio-esparru osoan, Udalak jarritako gailuaren bidez. Denbora eta bolumena mugatuko ditu, zaraten arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. Jarritako musikaren %50a, gutxienez, euskaraz izango da.
- Tiobiboa martxan izateko ordutegiari dagozkionez, zabalik izango dute goizeko 11:00etatik gaueko 00:00ak arte. Ordutegi hori ez errespetatzeak okupazio-baimena galtzea ekarriko du eta atrakzioa desmuntatu egin beharko da.
- Jarriko den atrakzioak ezingo du baimendutako azalera gainditu, ezta ere Udalak ezarritako eremutik kanpo egon.

- Euskararen Erabilera Normalizatzeko udal-ordenantzaren 41. artikuluko 1. puntuari jarraiki: festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz emango dira.
- Atrakzioaren prezioa bidaiako, gehienez, 2 eurokoa izango da, eta 4 bidaiaren abonua, gehienez, 7 eurokoa. Bidaia bakoitzaren gutxieneko iraupena 2 minutukoa izango da.
- Ingurua garbi mantendu beharko du egunero eta okupatutako eremua ere garbi utzi beharko du alde egiten duenean.

4. Adjudikazioa

Atrakzio motaren, ezaugarrien eta dagoen espazioaren arabera adjudikatuko ditu Udalak atrakzioak, irizpide hauek kontuan hartuta:

- Atrakzio-mota bakoitzeko bat adjudikatuko da. Bi berdin aurkeztuz gero, beren artean lehiatuko dira. Gutxienez, atrakzio hauek bermatuko dira: 4 kaseta, tiro bat, ohe elastiko bat, autotxoke bat, bi atrakzio mekaniko, karrusel bat eta simulagailu bat.
- Bermatutako atrakzio edo tiobibo antzekoak aurkeztuz gero, adjudikazioa egiteko, horien artean zozketa bat egingo da.
- Zozketa hori ekainaren 10ean (San Pedro jaiak) eta azaroaren 11n (San Nikolas jaiak) egingo da eguerdiko 13:30ean, Orioko udaletxeko udalbatzar-aretoan.
- Zozketaren emaitza webgunean (www.orio.eus) argitaratuko da eta horrek jakinarazpen-izaera izango du.
- Jardueran jardungo dute baimena dutenek eta haiekin familia- edo lan-harremana dutenek, eta horren berri aurretik eman beharko dute.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako guneak gordeko dizkie, eta Udalaren baimenik ez duen beste inork ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo saldu.

Interesik ez balu, gutxienez 5 lanegun lehenago jakinarazi beharko dio Udalari, idatziz, eta zozketan erreserbarako edo zerrendan atera den hurrengoari eskainiko zaio.

7. Etxebizitza mugikorrak

Tiobiboak irauten duten epealdian karabana, autokarabana edo etxebizitza mugikor bidez lo egin nahi duten baimendutako guztiek honela egin beharko dute:

- Karabanak edo autokarabanak Udalak horretarako ezarritako puntuan jarriko dira, autobide azpian dagoen autokaraban-gunean (ikus planoa).
- Ur beltzak eta grisak horretarako prestatutako gunetan utziko dira.
- Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina aurkeztu beharko dute.
- Atrakzio bakoitzeko 2 etxebizitza mugikor bakarrik baimenduko dira.

Baldintza hauek ez betetzeak, baimena ezeztatzea eta atrakzioa desmuntatzea ekarriko du.

PLIEGO DE CONDICIONES QUE RIGE EL PROCEDIMIENTO DE OTORGAMIENTO DE AUTORIZACIONES DE OCUPACIÓN DE SUELO PÚBLICO CON TIOVIVOS EN 2022

1.- Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria el otorgamiento de autorizaciones para la ocupación de suelo público con tiovivos para el año 2022.

En concreto:

1. En las fiestas de San Pedro, en la plazoleta junto a la Ikastola. Del 24 de junio al 3 de julio de 2022. (Periodo de instalación del 23 de junio a partir de las 14:00 horas al 4 de julio de 2022).
2. En las fiestas de San Nicolas, en la plazoleta junto a la Ikastola. Del 2 al 11 de diciembre de 2022. (Periodo de instalación: desde el 1 de diciembre de 2022 a partir de las 14:00 horas hasta el 12 de diciembre de 2022).

Dichos periodos podrán ser objeto de adaptación a los criterios generales en su momento.

2. Solicitudes

Podrán solicitar aquellas empresas o personas con capacidad jurídica para ello que reúnan los requisitos legales para el ejercicio de dicha actividad.

La solicitud se presentará por escrito, cumplimentando el formulario, en el registro municipal u oficina electrónica.

Los plazos de presentación de solicitudes serán los siguientes:

- Fiestas de San Pedro: antes de las 14:30 horas del día 3 de junio de 2022.
- Fiestas de San Nicolás: antes de las 14:30 horas del 4 de noviembre de 2022.

La solicitud deberá ir acompañada necesariamente de la siguiente documentación:

- Copia del DNI del titular de la atracción.
- Certificado de alta en el régimen de autónomos de la Seguridad Social y pago del último mes.
- Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con Hacienda.
- Póliza de responsabilidad civil con un límite mínimo de 300.000,00 euros en el caso de atracciones y de 150.000,00 euros en el caso de casetes, así como justificante de pago.

- Certificado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- Certificado anual de acreditación y prueba de atracción mecánica, firmado por un Ingeniero Industrial Colegiado.

Sólo se podrá presentar una atracción por solicitud.

3. Obligaciones de los adjudicatarios

Obligaciones del adjudicatario o autorizado:

1.- El interesado autorizado deberá acreditar el cumplimiento de los requisitos y presentar la documentación acreditativa de los mismos, en concreto:

- Boletín de instalación eléctrica temporal.
- Justificantes de pago de las tasas correspondientes y de depósito de la fianza por importe de 350 euros.
- Tras el montaje de la atracción, documento de inspección técnica elaborado y firmado por el técnico competente y colegiado correspondiente.

En caso de no presentar estos documentos, el interesado autorizado no podrá iniciar la atracción.

2.- Será responsable de los daños que pueda ocasionar la actividad, y el ayuntamiento tendrá la condición de tercero frente a dicha actividad.

3.- Cumplir además los siguientes requisitos:

- Deberán contratar la energía eléctrica con Iberdrola, quedando prohibido su suministro desde la red municipal. Deberá confeccionarse el boletín correspondiente a través de un instalador oficial y todas las conexiones serán realizadas por el instalador oficial. Deberá suscribirse un contrato de suministro eléctrico con Iberdrola que será por cuenta del solicitante.
- No se permitirá la perforación del terreno para la instalación.
- Disponer de hojas de reclamaciones y exhibirlas.
- La música será única en todo el recinto de atracción mediante el dispositivo habilitado por el Ayuntamiento. Limitará tiempo y volumen de acuerdo con la normativa vigente en materia de ruidos. Al menos el 50% de la música deberá ser en euskera.
- En cuanto al horario de funcionamiento del ti vivo, éste permanecerá abierto desde las 11:00 de la mañana hasta las 00:00 de la noche. El incumplimiento de

este horario dará lugar a la pérdida de la autorización de ocupación y al desmontaje de la atracción.

- La atracción a instalar no podrá superar la superficie autorizada ni situarse fuera del ámbito establecido por el Ayuntamiento.
- De acuerdo con el punto 1 del artículo 41 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskera, los escritos, anuncios y tarjetas de las barracas festivas se emitirán en euskera.
- El precio de la atracción no podrá ser superior a 2 euros por viaje y el abono de 4 viajes no podrá exceder de 7 euros y la duración mínima por viaje será de 2 minutos.
- Mantener la limpieza diaria de la zona y dejar limpia la zona ocupada al marcharse.

4. Adjudicación

Las atracciones serán adjudicadas por el Ayuntamiento en función del tipo, características y espacio disponible, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

- Se adjudicará uno por cada tipo de atracción. Si se presentan dos iguales competirán entre ellos. Se garantizarán al menos 4 casetas, un tiro, una cama elástica, un autochoque, dos atracciones mecánicas, un carrusel y un simulador.
- En el caso de presentación de atracciones o tiiovivos garantizados similares, la adjudicación se realizará mediante sorteo entre los mismos.
- El sorteo se celebrará los días 10 de junio (San Pedro) y 11 de noviembre (San Nicolás) a las 13:30 horas en el salón de actos del Ayuntamiento de Orio.
- El resultado del sorteo se publicará en la página web www.orio.eus, que tendrá carácter de notificación.
- El ejercicio de la actividad se llevará a cabo, previa comunicación, por las personas autorizadas y por las personas con las que mantengan una relación familiar o laboral.

5. Obligaciones del Ayuntamiento

El Ayuntamiento reservará los espacios prefijados y les garantizará que no actúen otras personas que no cuenten con la autorización municipal.

6. Derecho de explotación

El adjudicatario no podrá ceder o vender a cualquier otro el permiso o derecho de ocupación.

En caso de no tener interés, deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Orio con una antelación mínima de 5 días laborables y se ofrecerá al siguiente que haya salido a reserva o lista en el sorteo.

7. Viviendas móviles

Todas las personas autorizadas que quieran dormir en caravanas, auto caravanas o viviendas móviles durante el periodo de tiiovivo deberán:

- Las caravanas o auto caravanas se situarán en el punto destinado al efecto por el Ayuntamiento, denominado área de auto caravanas bajo la autopista (ver plano).
- Las aguas fecales y grises se depositarán en los puntos habilitados para ello.
- Deberán presentar el boletín de instalación eléctrica temporal.
- Sólo se autorizarán 2 viviendas móviles por atracción.

El incumplimiento de estas condiciones dará lugar a la revocación de la autorización y al desmontaje de la atracción.